



Osakidetza

ARABAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ARABA



FAMILIENTZAKO INFORMAZIOA

PEDIATRIAKO EGUNEKO OSPITALEKO ENDOKRINO-PROBAK: LUFORAN TESTA

Zertan datza proba?

Unitatean sartzean, 150. gelan egongo da, haurra pisatu egingo da, konstanteak hartuko zaizkio eta zain-bide bat bideratuko zaio.

GnRH izeneko substantzia bat zain barnetik hartzean datza. Substantzia hori normalean organismoak ekoizten du, baina testerako ematen direnak baino kantitate txikiagoetan. Ondoren, hainbat odol-ateratze egiten dira denbora jakin batzuetan.

Ez du eragiten aurreikus daitekeen ondorio negatiborik.

Nola prestatu behar da proba egiteko?

Ez da nahitaezkoa baraurik egotea.

Ospitalera joan baino ordubete lehenago, EMLA krema eman behar zaio haurrari besoen bi tolesturetan (segitu EMLA kremaren jarraibideak).